## 'Azeritzar maltzurra'

ETB1 • 17:55ean

*Azeritzar maltzurraren kondaira* izeneko dokumentala emango dute gaur *Bidaide* saioaren barruan, *Basabizitza ikusgai* atalean.



### ETB 1

07:00: **Superbat.** Marrazki bizidunak.
'Pinguinoen mendekua', 'Ninja dortokak', 'Huckleberry Hound', 'Juantxo musker', 'Hirukiak', 'Hartz txiki', 'Tom eta Jerry' eta 'Espazioko zaindariak'.
09:10: **Euskal Herritik.**
09:35: **Hitzaro.**
10:05: **Sorginen Laratza.**
11:25: **Ikusgela.**
12:25: **Euskal Herriko altzariak.** Dokumentala.
13:00: **Iparraldearen orena.**
13:05: **Dragoi basatia.** Marrazki bizidunak
13:30: **Gaur egun.**
14:10: **Goenkale.** Telesaila.
14:50: **Txirrita.** Marrazki bizidunak.
15:25: **Egin kontu.**
17:00: **Bidaide.** Dokumentalak.
Natura bizileku: Bolizko zerriak.
Basabizitza ikusgai: Azeritzar maltzurraren kondaira.
18:25: **Karate Kid.**
18:50: **G.I: Joe soldaduak.** Marrazki bizidunak.
19:15: **Parker Lewisek ez du sekula galtzen.** Telesaila.
19:40: **KTM!**
20:28: **Gaur egun.**
21:15: **Albistegi berezia: Egibar-Otegi aurrez aurre.**
22:00: **Goenkale.**
22:45: **Sorginen Laratza.**
00:10: **Hitzetik Hortzera.**
01:00: **Bakarrik.** Estepan Aldamizek aurkeztutako saioa.
02:50: **Egin kontu.** Errepikapena.
04:20: **Haran eta gailur.**
05:10: **Misterio giltzak.** Dokumentala.
05:50: **Ikusgela.**
06:20: **Osabideak.** Beherakoaren aurkako haustura.

### ETB 2

07:00: **Del país de los vascos.**
07:35: **Crónicas del Caribe.**
08:05: **Empresa Vasca.**
08:40: **Matar para vivir.**
09:30: **El Punto.** Gonbidatua: Juan Mari Atutxa.
10:00: **Forum.** Gonbidatua: Ander Letamendia.
10:30: **La cocina de Pedro Subijana.**
10:45: **Boston.** Telesaila.
11:10: **Luz de Luna.** Telesaila.
11:55: **Remington Steele.** Telesaila.
12:45: **Bonanza.** Telesaila.
13:40: **Informativo territorial.**
13:55: **¡Mira, mira!**
14:28: **Teleberri.**
15:30: **Lo que faltaba.**
17:40: **Zinema.**
**Jinetes.**
Zuz.: Roy Rowlnad. Akt.: Joel McCrea, Arlene Dahl, Barry Sullivan. 1950.
19:15: **Esta es mi gente.**
20:25: **Zoombados.**
20:58: **Teleberri.**
22:00: **Zinema.**
**La isla de las cabezas cortadas.**
Zuz.: Remmy Halin. Akt.: Geena Davis, Matthew Modine. 1995.
00:25: **Pensacola.** Telesaila.
01:50: **Zinema.**
**Buster: el robo del siglo.**
Zuz.: David Green. Akt.: Phil Collins, Julie Walters, Larry Lamb. 1988.
03:20: **Lo que faltaba.** Errepikapena.
05:15: **Forum.** Errepikapena.
04:45: **Amaiera.**

## gaurko filmak

Ane Muñoz

■ **BUSTER, EL ROBO DEL SIGLO.**
Genesis musika taldeko bateriajole eta abeslaria, hau da Phil Collins, komedia poliziako britainiar zozo samar honen protagonista da. Haren alboan, berriz, Julie Walters ezaguna azaltzen da. Collins ospetsua ez da oso aktore nabarmena, film txiki hau ikustean ohartuko zareten bezala. Lapur protagonistak, emaztea Londresen utzi eta Acapulco alderantz abiatzea erabakiko du.

■ **LA ISLA DE LAS CABEZAS CORTADAS.**
Renny Harlin finlandiarrak Geena Davis emazte ohiaren luzimendurako sortutako abenturazko film komertzial garestia da. Bestale, ez da oso interesgarria, ez argumentuaren planteamenduarengatik eta ez eszenaratzearen aldetik ere. Itsaslapurren abentura klasikoak oinarritzat hartuz, Harlinek ez zuen jakin haien xarma, erakargarritasun eta ikusgarritasuna merezi bezala berreraikitzen. Huts samarra izanik ere, Geena Davis eta Matthew Modine ospetsuak bikote bezala ikusi nahi badituzue, hona aukera.

■ **ALERTA MAXIMA II.**
Steven Seagal zozoak protagonizaturiko *Alerta maxima (Under Siege)* akziozko film komertzialaren bigarren zatia da, lehenaren oso antzekoa eta, kalitatez, hura baino are kaskarragoa. Seagal gihartsuak antzezten du rol nagusia, lehen atalean bezala, alegia, eta hartan egin zuen modura, ekoizle bezala sinatu zuen. Biolentziazko uneez josita dago, efektu berezi garestiez apaindua, eta oso argumentu arrunteko gidoi pobrea du abiapuntutzat. Presaka egina dirudi, gainera. Protagonista harroaren alboan azaltzen diren aktoreak ez dira oso nabarmenak, eta oro har antzezle talde kaskarra osatzen dute. Dena den, esan bezala, ez da aktoreak luzitzeko filma.

### *Totó ahaztezina Pasoliniren maisulan batean*

■ **PAJARITOS Y PAJARRACOS.**
Film eder, ero eta oso ikusgarri honi, zinemazaleontzat ezezik, gainontzeko ikus-entzule helduontzat gomendagarria deritzot. Dena den, bereziki gozagarria da Pier Paolo Pasolini maisu italiarraren miresleentzat. Zuri-beltzean filmaturiko bitxikeria umoretsua da, nahikoa maltzur eta ausarta, gainera; arrano hiztun azkar bat aurkezten du, beste elementu bitxien artean. Ahaztezina da, adibidez, Toto antzezle mitikoak, bide zahar batean semearekin doala, arranoa topatu eta horien artean sortuko den elkarrizketa. Hegaztia ez da ergela, ez horixe. 60ko hamarkadaren erdialdean estreinatu bazen ere, urte asko igaro ziren Espainian proiektatzeko baimena lortu zen arte. Badakizue, zentsura erne zebilen orduan!

| | | |
|---|---|---|
| **La chair du diable** | | ♠♠♠ |
| 1976, Freddie Francis, 90 m. | | 08:30 C+(f) |
| **El hijo del árabe** | | ♠♠ |
| 1977, Bruno Corbucci, 93 m. | | 11:00 La2 |
| **Alas cortadas** | | ♠♠ |
| 1997, Lloyd Kramer, 92 m. | | 16:15 T5 |
| **Jinetes** | | ♠♠ |
| 1950, Roy Rowland, 89 m. | | 17:40 ETB2 |
| **Le Poids du déshonneur** | | ♠♠♠ |
| 1996, Barbet Schroeder, 100 m. | | 21:00 C+(f) |
| **La isla de las cabezas cortadas** | | ♠♠ |
| 1995, Remmy Halin, 118 m. | | 22:00 ETB2 |
| **Relaciones íntimas** | | ♠♠ |
| 1997, Philip Goodhew, 96 m. | | 22:00 C+(e) |
| **Femelles en cage** | | ♠♠ |
| 1986, Tom DeSimone, 90 m. | | 22:45 C+(f) |
| **Alerta máxima II** | | ♠♠ |
| 1995, Geoff Murphy, 95 m. | | 23:00 A3 |
| **Buster: el robo del siglo** | | ♠♠ |
| 1988, David Green, 92 m. | | 01:50 ETB2 |
| **El extraño pasajero** | | ♠♠ |
| 1998, Bob Yari, 89 m. | | 04:30 A3 |
| **Pajaritos y pajarracos** | | ♠♠♠♠ |
| 1966, Pier Paolo Pasolini, 85 m. | | 04:30 La2 |
| **Vidas quebradas** | | ♠♠ |
| 1985, Robert Greenwold, 88 m. | | 04:45 T5 |

♠ TXARRA · ♠♠ ESKASA · ♠♠♠ BALEKOA · ♠♠♠♠ ONA · ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Geena Davis da *La isla de las cabezas cortadas* filmeko aktore nagusia.

## irratia ◆

**Euskadi Irratia.** Goizean, 09:30etan, gaurko egunez historiako hainbat gertaerez mintzatu ondoren, egunari dagokion agendaren berri emango dute *Goizean behin* saioan. 10:00etan Harkaitz Canoren gogoeta entzun eta gero, Andres Iñigok Nafarroako baserri eta etxe izenen inguruan egin duen lanari buruz hitz egingo du. 11:00etan, Donostian dagoen BIT ART proiektua emango dute ezagutzera. *Lauretan babel* saioan, itxaropenaren deiari buruz hitz egingo dute. Zerbitzu honek 32 urte bete ditu, eta itxaropena zabaltzen dihardutenekin jardungo dute solasean. 17:00etan, Soblind taldekoekin hitz egingo dute, eta ondoren, Asier Serranok mitologiaren kutxa irekiko du. 18:00etako tertulian euskalkien egoera izango dute hizpide. *Atlantida* saioan Mila Aierbe astrologoa izango da entzuleek egiten dizkioten galderei erantzunez. Gauerditik aurrera jasoko dute Mila Aierberen bisita, 01:00etan.

**Segura Irratia.** 09:05ean *Kalejira* saioa eskainiko dute. Zorion agurrak eta entzuleen eskariak dira nagusi saio horretan. Entzuleek kantak eskatzen dituzte, eta nahi dutenari eskaini. Ondoren, egunerokо magazina, *Hamar Hamairu* eskainiko dute. Gaur asteazkena izanik, Ordiziako azokaren berri emango dute. Hango giroa eta produktuen prezioa jakiteko aukera izango da. 15:00etan *Betiko martxan* magazina eskainiko dute.